



Horrexegatik zientziak ez dauka ezer esatekorik erlijio-sinesmenaren inguruko kontuez, **hala nola** Jainkoaren existentziaz.

Andrew Dessler, Edward Parson: *Klima-aldaketa globalaren zientzia eta politika*, ZIO bilduma, EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2009, Itzul: Iñaki Iñurrieta.





Aurretik emandako informazioa osatzen, zehazten edo haren ulertzea errazten duten adibideak txertatzeko, honako testu-antolatzaile hauek baliatzen dira, besteak beste: *adibidez, esaterako, hala nola...*

Alegia, lehen diapositibako esaldian, erlijio-sinesmenaren inguruko kontuen adibide bat da Jainkoaren existentzia.

HALA NOLA eta puntuazioa

Oro har, **HALA NOLA**k aurrean koma eramaten du, baina atzean ez:

- Arnas pigmentu batzuk, **hala nola** hemoglobina eta mioglobina, ezinbestekoak dira oxigenoa garraiatzeko mekanismoan.
 - Arnas pigmentu batzuk, **hala nola**, hemoglobina...
- Hor sartzen dira, halaber, ibilgailuen azterketak egiteko guneak, **hala nola** garbitu, doitu, osagarriak muntatu, pneumatikoak eta argiak begiratu eta abar egiteko guneak...
 - (...) ibilgailuen azterketak egiteko guneak, **hala nola**, garbitu, doitu, osagarriak...



(Adibideak EHUskaratuak corpusetik hartu dira.)

HALA NOLA eta puntuazioa

Adibide-segida parentesiz edo marraz mugatu ohi da luzea denean, irakurketa oztopatzen duenean edo mendeko perpausaren barruan doanean:

- Harrezkeroztik (...) tenplu grekoak (**hala nola Olinpiako Zeusena edo Atenaseko Partenoi ospetsua**) harlandu handiekin eraiki ziren oinplano angeluzuzen batean.
- Kalosa bi kasutan sintetizatzen da bahe-elementuetan: zauriak eta bestelako estres-egoerak suertatzen direnean —**hala nola estimulu mekanikoak eta tenperatura altuak**—, eta ohiko garapen-gertaeratarako aurrez prestatzeko —esaterako, sorgorraldietarako—.
- Mugimendu horrekin orobat erlazionatzen dira hainbat europar artista —**hala nola Frantziako Nouveaux realistes taldea**—, irudia eta objektua korronte abstraktuetatik erreskatatu nahian dabilzanak.



(Adibideak EHUskaratuak corpusetik hartu dira.)

HALA NOLA eta sintaxia

HALA NOLAren eskuinean agertzen diren adibideei, dagokien atzizkia erantsi behar zaie:

- Kalkulu hau aplikatu dakieke itxitura guztien zati opakuei, **hala nola** fatxada-hormei, estalkiei eta kanpoko airearekin kontaktua duten zoruei.
 - ...guztien zati opakuei, **hala nola** fatxada-hormak, estalkiak eta ...
- Komunikazio artistikoaren prozesuan esku hartzen duten elementu espezifikoak finkatzerakoan, eragin handia izan dute hizkuntzalari eta filosofo estrukturalistek, **hala nola** Saussure-k edo Barthes-ek.
 - ...eta filosofo estrukturalistek, **hala nola** Saussure edo Barthes.
- Guk jaten dugun karbohidrato-iturri nagusia zenbait landareren almidoia da, **hala nola** patatarena, arrozarena eta zerealena.

(Adibideak EHUskaratuak corpusetik hartu dira.)



HALA NOLAren erabilera

HALA NOLAak izen (-sintagma) orokor edo zehaztugabea izan behar du aurrean:

- Aitzitik, **objektu solido mugatuekin erlazionaturiko hitzek**, **hala nola** «txakur» hitzak, objektu...
- Horiekin batera, **beste osagai batzuk** ere behar dira, **hala nola** euskarritarako markoa, karkasa, aireztatze-kaxa....
- Baina zer esan **alegiazko izakiez**, **hala nola** adarbakarrez?
- **Zenbait magnitude**, **hala nola** tenperatura, beroa edota entropia, definiturik ere ez daude partikula batentzat.

(Adibideak EHUskaratuak corpusetik hartu dira.)

HALA NOLAren erabilera

HALA NOLAk ez du perpausik onartu ohi:

- (?) Ezaugarri konplexuek bariazioa erakusten dute, **hala nola**, pertsona batzuk besteak baino altuagoak **dira**, eta batzuek besteak baino buru luzeagoa **dute**.
 - Ezaugarri konplexuek bariazioa erakusten dute; **adibidez**, pertsona batzuk beste batzuk baino altuagoak dira...
- (?) Hego Ameriketatik ere iritsi zaizkigu mezuak, **hala nola**, Ekuadorretik euskaldun batek **idatzi zigun** esker ona adierazteko.
 - Hego Ameriketatik ere iritsi zaizkigu mezuak; **esaterako**, Ekuadorretik euskaldun batek idatzi zigun esker ona adierazteko.
 - ...mezuak, **hala nola** ... euskaldun batek esker ona adierazteko idatzi **ziguna**.
- (?) Txakurrak eta katuak etxe-animalia onenak dira, **hala hola** arrain bat **ezin eraman dezakezulako** kalera.
 - (...) onenak dira: arrain bat, **konparazio batera**, ezin eraman dezakezu kalera.
- (?) Txakurraren jabeak, **hala nola** kirolzale **bada**, mendira eraman dezake txakurra.